



EBAZPENA, Hezkuntza sailburuordearena, "Dantzerti" Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantza Goi Eskolaren 2024-2025 ikasturterako eskola-egutegia egiteko osagarritzko arautegia ematen duena.

"Dantzerti" Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantza Goi Eskolaren 2024-2025 ikasturterako eskola-egutegia ondoko hauei lotuko zaie:

1.- Irakasleak irailaren 2ean hasiko dira lanean, ikasturte berria antolatzeko ekintzak eta jarduerak egiteko.

2.- Eskola-jarduerak ezingo dira 2024ko irailaren 6a baino lehen hasi, eta, beranduenez, 2025eko ekainaren 20an amaituko dira.

Azken eskola-eguna eta ekainaren 30ra bitarteko epea ikasturteko hainbat azken azterketa ezberdinak, ikasturtea berrikusi eta ebaluatzeko lanak, programazioak, Urteko Txostenaren prestakuntza eta dagozkion administrazio-egintza guztiak egiteko erabiliko da.

Uztailean zehar eta klaseak ematen ez diren ikasturteko beste egun edo aldietan, (abuztuan salbu), zuzendaritza-taldeko kide bat, gutxienez, beti izango da ikastetxean edo berehala ikastetxean izateko moduan.

3.- Ikasturte barruan ikasleekin iharduneko egun kopurua, gutxienez, 175ekoa izango da, hauetako 160, gutxienez, eskola-egunak izango direlarik. 2024-2025 ikasturtearen aurkezpena egiteko erabiliko den eguna eskola-eguntzat hartuko daiteke.

Eskolak bi lauhilekotan antolatu ahal izango dira: lehen lauhilekoaren bukaeran azterketaldi bat izango da, eta beste bat, bigarren lauhilekoaren bukaeran, ohiko zein ezohiko deialdietarako. Aldi horiek ez dira 15 egunetik gorakoak izango, eta ezin izango dira, inondik inora ere, eskola jarduera zuzeneko 160 egunetatik deskontatuak izan.

Lauhileko bakoitzean, aipaturiko 160 eskola-egunak ezingo dira ikasturteko azken azterketak (ikasle ofizial, zein libreak izan daitezten) edo sarbide-probak egiteko erabili. Era berean, ezin izango dira klaseak eten azterketa-aldiak ezartzeko, gainditu gabeko ikasgaiak dituzten ikasleentzako azterketak egiteko, edo ebaluazio-batzordeak edo klaustroak egiteko.

Ikasleek ebaluazio jarraituaren prozesuan gainditu ez dituzten irakasgaien ezohiko proba bat egin ahal izango dute. Proba hori ekainean egingo da, ikastetxearen eskola-egutegietan zehazten diren 160 eskola-egunak amaitzean.

4.- Ezinbesteko arrazoiengatik eskola-egunen kopurua gutxitzen bada, egutegia berregokitu egingo da aurreikusitako 160 egunetara iristeko, kasu bakoitzean langileen lan-eskubideak errespetatuz.

Nahiz eta egunen batean ikasle batzuk edo ikasle guztiak klasera ez joan, Ikastetxeak klaseak ofizialki programaturiko ordutegiaren arabera eskaintzen jarraitu behar izango du.

Bestalde, noizbehinka edozein jarduera ez ohikoa programatu ahal izango da asteko zazpi egunetan zehar, igandeak edo oporretako beste aldi batzuk barne. Jaiegun horiek ezin izango da eskola-egunen zenbaketaren barruan zenbatu, ezta eskolak benetan ematen diren egunen zenbaketaren barruan ere.

Egutegia berregokitu behar denean hasieran egiteko erabili zen prozedura berbera jarraituko da. Dagozkion Aginte-organoak ez badu berregokitze proposamenik egiten, Hezkuntzako Ikuskaritzak egin





dezan eskatuko dio. Erantzunik ezean, Hezkuntzako Ikuskaritzak egutegia berregokitu eta ikastetxeari jakinaraziko dio.

5.- Eskola-egutegia egiteko, dagokion urteko Autonomia Erkidegoko lanegunetako jaiegunen egutegi ofizialaren arabera jaiegun izaera dutenak izango dira jaiegunak, baita herri edo dagokien lurraldeko zaindarien jaiegunak ere. Edonola ere, ezin izango da jaiegun horietakoren bat eskola-egun edo eskolak ematen diren egun bezala hartu.

ESADD Dantzerti ADDGEk, nahi izanez gero, jaieguntzat hartu ahal izango du haien zaindariaren eguna, dagokion egunean zein aukeratzen duten ordezkaturako beste egun batean ospatuz. Edonola ere ezin izango da jaiegun hori eskola-egun edo eskolak ematen diren egun bezala hartu.

6.- Gabonetako oporraldia 2024ko abenduaren 24tik 2025eko urtarrilaren 6ra bitartekoa izango da gutxienez, biak barne.

Aste Santuko oporraldia 2025eko apirilaren 17tik 21era bitartekoak izango da gutxienez, biak barne.

7.- Eskola egutegiaren proposamena tramitatzeko 2008ko martxoaren 10ean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak emandako Aginduko 9. atalean ezarritakoari jarraituko zaio, (2008ko apirilaren 25eko EHAA). Bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan —fondo publikoekin ordaindutakoetan— ikasturte bakoitzeko eskola-egutegia egiteko oinarritzko arautegia zehazten duena.

Egutegi proposamena ikastetxeko Eskola Kontseiluak egingo du, baina ikastetxeren batean organo hori osatu gabe badago, irakasleen klaustroak egingo du egutegi proposamena.

2024ko maiatzaren 31 baino lehen, ikastetxeko zuzendariak Hezkuntza Sailak horretarako espresuki diseinaturiko aplikazio informatikoa erabiliz hurrengo ikasturteko eskola-egutegiaren proposamena egingo du, beti ere Hezkuntzako Ikuskaritzak jakinaraziko dizkion argibideak jarraituz. Ikastetxeak aplikazio horretan ikastetxeko Eskola Kontseiluak eskola-egutegiaren proposamena onetsi zuen data adieraziko du. Eskola Kontseilu horrek eskola-egutegiaren proposamena onetsi zuen bilkurako akta ikastetxean bertan artxibatuko da eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura izango da.

8.- Erabaki honek ezartzen duena nolabait aldatzeko, ontzat eman egin beharko du hezkuntza-ordezkaritzak. Zentroaren Eskola Kontseiluak aurrez eta espresuki azalpen-eskabide baten bidez baieztatu eskatuko dio Hezkuntza Ikuskaritzari.

Ilido horretan, irakaskuntza artistikoen berezitasunak eta espezifikotasun handiko ekipamenduen eta espazioen beharrari loturiko baldintzatzaileak kontuan hartuta, ikasketa-planaren garapenean izaera mugatzailea dutenak, irakasgai batzuen irakaste-egutegietan ebatzen honen 5. atalean zehaztutako jai-egunak eskola-egunen eta irakaste-egunen barnean zenbatu ahal dira, baita zapatu eta igandeak ere. Horretarako ikastetxeko zuzendaritzak aldeztu aurretik onartutako eskola-egutegian dagokion aldaketa egin ahal izateko Hezkuntza lurralde ordezkariari eskabide bat aurkeztuko dio, beti ere Ikastetxe- eta Planifikazio-Zuzendaritzari jakinarazi eta Hezkuntzako Ikuskaritzaren onespenez txosten arrazoitua izan ondoren.

Dena den, proposaturako egutegi hauek eraginkortasun maila iraunkorra izatea lortzen duten irakasorduek onargarriak eta atsedean nahikoak programaturiko plantamendu metodologikoetan oinarrituta egon behar izango dute.



9.- ESADD Dantzerti ADDGEk, finkatutako epealdiaren barruan beren eskola-egutegiaren proposamena bidaltzen ez badu, edo bidalitakoa onartzen ez bada, dagokion Hezkuntza Lurralde Ordezkariak egindakoa onartu behar izango du.

Vitoria-Gasteiz,

HEZKUNTZA SAILBURUORDEA
Begoña Pedrosa Lobato